

Alcanar

Joxean Agirre

Bizitzako oporrik berezienak Alcanar narko sekta batean egin nituen gazteagoa nintzenean eta ondoko urteetan ingurukoak aspertzearaino kontatu nituen hango gorabeherak.

Sektak “antroponomia” praktikatzaren zuten eta uste dut hitz horrek gorputzaren ezagutza esan nahi duela. Egunean bitan egiten genuen gimnasia borobilean jarrita Luisen gidaritzapean eta ariketak egiten ari ginen bitartean bakoitzak bere sentipenak kontatu behar izaten zituen. Han zeuden gehienak gaixorik zeudenez, bakoitzak bere minen berri ematen zuen gehienetan. Bazegoen Peñiscolako 29 urteko udaltzain bat bere bi anaia 30 urterekin hilda zituena, eta, hipokondriako totala zenez, sintoma arraro guztiak zituena. Luisek, gidariak,

«*eso es señal de que te estás curando*», errepikatzen zion aldiko eta ariketak bukatu orduko erreskadan jarri eta ur txorrota indartsu eta hotz baten azpian egin behar izaten genituen pare bat minutu.

Sektako liderra eta egoitza nagusia Zaragozan zegoela dakit eta Luisen emaztea zela hierarkian bigarrena. Emakume jantzia zen eta azkarra. Atea zabaldu eta berarekin tupust egin nuen batean, «zu tauro zara» esan zidan, eta nolakoa nintzen eta nolakoa izango nintzen agertu zidan neu txundituta uzteraino. Bazegoen halako mistika xelege bat ere, egun batean seme txikienari eskuetan tximeletak pausatzen zitzaizkiolako, «*es un medium, es un medium*», hasi baitzen guztiak espantuka. Ez dut jarraituko. Goizean goiz hondartzan

meditazioa egiten genuen zerumugan ateratzen ari zen eguzkiari begira eta egunean zehar jaki gordinak bakarrik jaten genituen eta afalordua baliatzen zuen Luisek sermoiak botatzeko eta egunen batean Isaias profeta suzko gurdi baten gainean etorriko zela iragartzen zigun eta sinestuenak salbatuko zituela eta hori esatean taldeko bi fedegaberi begiratzen zigun.

Alcanar narko zelula jihadistak ere suzko gurdi bat edo kamioi bat Bartzelonaren bihotzean leherrarazi nahi zuela entzutean Isaias profetarekin gogoratu naiz, baina diferentziak erabatekoak dira, nire sektakoak onberak baitziren, gaitz sendaezinak zituztenei laguntzen saiatzen zirenak. Zelula jihadistakoek ez dute fede suntsitzaile bat besterik. •

#TotsSomBarcelona

Xabier Mikel
Errekondo

A nkerkeria galanta Bartzelona eta Cambrilsko erailketak eta zaurituak. Jihadismoak honela aitortu ditu ekintzak: «Espainiar denoi, garaia da zuen gobernuak gure herrietan errugabezi egin dieten guztia ordaintzeko». «...ekintza Koalizioko estatuen aurkako operazioen barruan eman da». Argi izendatzen du erruduna: espainiar Estatua eta Gobernua, eta nori erasoko dion: espainiar orori (euskaral herriarrok eta kataluniarrak barne).

Nazioarte mailako biolentzien kasuan Espainiakoak EAE, Nafarroa eta Kataluniako gobernuak beti betatu izan ditu segurtasuna zaintzeko erakunde berezietatik. Zer dela eta informazioa ukatu? Larria oso eta susmagarria dema politikoa ezin tenkatuagoa

dagoen unean. Nork du onura politiko gehien eskuratu ahal? Espainiako Gobernuak, zalantzarik gabe. Historikoki bezala orain, ez dira fidatzekoak. Lehen salaketa ofizial eta publikoaren buru Felipe VI eta Raxoi joatea irain larria da. Uste dut Generalitateak irmoki salatu egin behar duela espainiar Gobernuaren ardura. Kataluniak eta Kataluniako herritarrek jasandako erasoak eta erailketak haien erabaki politikoen ondorio direla. Mundura zabaldu beharko lukeela Kataluniak ez dituela bere egiten Espainiako Gobernuak hartu erabakien ardurak. Eta bere babesa eskaintzen diela espainiar herritarrei.

Espainia aldetik aurpegian zimurrik gabe dira ausartzen esatera: «Orain da batu-

ta egoteko momentua. Batuta soilik dugu berreskuratuko askatasuna». Galtzeko zorian jarri dizkiguzuen askatasuna eta bizi berez ari zarete. Unionismo gordinagorik!

Bartzelona musulmana izan zen 801 arte (Dolors Bramon, “De quan érem o no musulmans”). Baina, Al-Andalusen garaietara itzuli beharrik ez dugu.

Nahikoa da Aznar eta ondorengoak oroitzea, Azoreak, Irak, 11M, OTAN edo Ekialde Hurbileko herri zapalduetan espainiar soldaduen botatzarrek harrotutako hautsa artetik bertakoen begi ninietan iltzaturik geratu den bandera gorri-horia...

Zuk atera kontuak. Nik argi daukat nori ez niokeen emango ohorezko domina. •